# BERTSOKARIA

arabako bertsozale elkartea

**HAUR ETA GAZTEENTZAKO ALDIZKARI DIGITALA** 2021eko ekaineko alea

## GASTEIZ BERTSOZALE




Gasteizko udalaren eta ikastetxeen elkarlanari esker urtero Bertsolaritza eskaintzen da Gasteizko Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan. Guztira 17 ikastetxetan landu dute 2020-2021 ikasturte bitxi honetan bertsolaritza 15ean behin. Hauek dira parte hartu duten ikastetxeak: Toki-Eder, Abetxuko, Luis Elejalde, Lakuabizkarra, Armentia, Ramon Bajo, Angel Ganivet, Umandi, Adurtza, Ikas Bidea, Barrutia, Arantzabela, Odon de Apraiz, Abendaño, Olabide, Mariturri eta Zabalgana.

Zailtasunen eta neurri zorrotzen gainetik gozamena eta bat-batekotasuna izan dira aurtengo protagonista nagusiak, eta inork gutxik espero ez bazuen ere ikasturtea ederto amaitu dugu.

15ean behin landu dugu bertsolaritza 5. mailan, eta 6. mailan tailerrak egin ditugu honako ikastetxeetan: **Umandi, Toki-Eder, Mariturri, Barrutia, Adurtza, Abendaño eta Sagrado Corazón.** Askotariko ekintzak egin ditugu, bat-batekotasunean trebatzeko jolasak, egun berezietarako bertso-sortak, Alea bideo kopla lehiaketa, eskolarteko bertso txapelketarako bertsoak, santa eskea, ipuinak bertsotan, 6. mailari agur eta oporrei kaixo esateko bertsoak...

Ikasturtea musukoen atzeko irribarre salatariz amaitu dugu. Hurrengoan gehiago eta hobeto!

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava
www.araba.eus
Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Vitoria-Gasteizko Udala

# GELAZ GELAKO BERTSO BILDUMA



## Egin KLIK bertsoak ikusteko !!!

### GASTEIZ

ABENDAÑO IKASTOLA – 5.MAILA A: PINOTXO

ABENDAÑO IKASTOLA—5. MAILA B: LEHOI ERREGEA

ABENDAÑO IKASTOLA— 5.MAILA D: 101 DALMATA

ABETXUKO IKASTOLA—5. MAILA A—ESKOLARTEKO BERTSOAK

ADURTZA IKASTOLA- 5. MAILA A—ESKOLARTEKO BERTSOAK

ADURTZA IKASTOLA- 5. MAILA B—ESKOLARTEKO BERTSOAK

ANGEL GANIVET IKASTETXEA- 5. MAILA D1—ESKOLARTEKO BERTSOAK

ANGEL GANIVET IKASTETXEA- 5. MAILA D2—ESKOLARTEKO BERTSOAK

ANGEL GANIVET IKASTETXEA- 5. MAILA D3—ESKOLARTEKO BERTSOAK

ARANTZABELA IKASTOLA-5.MAILA A—BERTSOAK

ARANTZABELA IKASTOLA-5.MAILA B—BERTSOAK

ARMENTIA IKASTOLA- 5. MAILA A—ESKOLARTEKO BERTSOAK

ARMENTIA IKASTOLA- 5. MAILA B—ESKOLARTEKO BERTSOAK

ARMENTIA IKASTOLA- 5. MAILA D—ESKOLARTEKO BERTSOAK

BARRUTIA IKASTOLA-5.MAILA A—BERTSOAK

BARRUTIA IKASTOLA-5.MAILA B—BERTSOAK

IKASBIDEA IKASTOLA-5.MAILA A—BERTSOAK

IKASBIDEA IKASTOLA-5.MAILA B—BERTSOAK

IKASBIDEA IKASTOLA-5.MAILA D—BERTSOAK

LAKUABIZKARRA ESKOLA- 5. MAILA A—ESKOLARTEKO BERTSOAK

LAKUABIZKARRA ESKOLA- 5. MAILA B—ESKOLARTEKO BERTSOAK

LAKUABIZKARRA ESKOLA- 5. MAILA C—ESKOLARTEKO BERTSOAK



# GELAZ GELAKO BERTSO BILDUMA

Egin KLIK bertsoak ikusteko !!!

## GASTEIZ

LUIS ELEJALDE IKASTETXEA- 5. MAILA A—ESKOLARTEKO BERTSOAK

LUIS ELEJALDE IKASTETXEA- 5. MAILA B—ESKOLARTEKO BERTSOAK

MARITURRI IKASTETXEA — 5.MAILA 1: AHATETXO ITSUSIA

MARITURRI IKASTETXEA — 5.MAILA 2: HANSEL ETA GRETEL

MARITURRI IKASTETXEA — 5.MAILA 3: LEHOI ERREGEA

ODON DE APRAIZ IKASTOLA-5.MAILA A—BERTSOAK

ODON DE APRAIZ IKASTOLA-5.MAILA B—BERTSOAK

OLABIDE IKASTOLA — 5.MAILA A: PETER PAN

OLABIDE IKASTOLA — 5.MAILA B: AHATETXO ITSUSIA

OLABIDE IKASTOLA — 5.MAILA D: ALADIN ETA KRISEILU MIRAGARRIA

OLABIDE IKASTOLA — 5.MAILA E: RAPUNZEL

RAMON BAJO IKASTETXEA- 5. MAILA A—ESKOLARTEKO BERTSOAK

TOKIEDER IKASTOLA—5. MAILA A—ESKOLARTEKO BERTSOAK

TOKI EDER IKASTOLA– 5. MAILA B—ESKOLARTEKO BERTSOAK

TOKI EDER IKASTOLA– 5. MAILA C—ESKOLARTEKO BERTSOAK

UMANDI IKASTOLA—5. MAILA A—ESKOLARTEKO BERTSOAK

UMANDI IKASTOLA—5. MAILA B—ESKOLARTEKO BERTSOAK

UMANDI IKASTOLA—5. MAILA C—ESKOLARTEKO BERTSOAK

ZABALGANA IKASTETXEA — 5.MAILA A: MULAN

ZABALGANA IKASTETXEA — 5.MAILA B: ALADDIN

ZABALGANA IKASTETXEA — 5.MAILA D: HANSEL ETA GRETEL

# ARABAKO 14 urtez azpiko Eskolartekoa

## GASTEIZ



Apirilean zehar ikastetxeetan eta bertso-eskoletan 2500 haurrek bertso idatziak prestatu ostean, maiatzean zehar eskualdez eskualde Topaketak izan dira, idatzizko sari banaketa eta bat-bateko erakustaldiekin. Gasteizkoa maiatzaren 29an izan zen Gasteizko Salburuako Gizarte Etxean.



Aforo kontuengatik erraz bete genuen aretoa, nerbioak baretu eta festa giroa izan zen barruan. Gasteizko ikastetxeetako idatzizko lan sarituak eta bat-bateko emanaldiak tartekatu ziren.

Gasteizen ere iaz baino haur gehiagok parte hartu dute bat-bateko modalitatean, Hezkuntza Arautuko metodologia berrikuntza eta bertso-eskoletan egon den parte hartzaile hazkundea lagun. Alde Zaharreko, Amaiako eta Bertxilikako bertso-eskoletako ikasleen erakustaldi freskoa izan zen Salburuako Gizarte Etxean, Zigoitin izan zen finalean berriz ere ikusteko aukera.



Idatzizko eta bat-bateko finalistak ekainaren 5ean Zigotian elkartu ziren, txapelketari bukaera borobila emanez. Saria jaso duten Arabako Gasteizko gaztetxoek irailaren 12an Hontza Xtrem abentura parkean egun pasa izango dute, goizean idatzizkoek eta arratsaldean bat-batekoek, eta ohartzerako berriz ere zabalik egongo dira gure bertso eskolak, bertso gosez daudenei martxa emateko prest.

# BBG eguna AGURAINEN



Aguraingo Harresi Aretoan izan zen Ekainaren 15ean Bertsoa Bizi Gazte eguna eta bertan jokatu zen 14 urtetik 18 urtera bitarteko Arabako Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finala ere.

10:00etan lehiaketara aurkeztutako bideoklipak eta mokoka formatuko bideo laburrak proiektatu ziren, eta bertan jakinarazi da zeintzuk izango diren irailaren 1, 2 eta 3an Manurgako egonaldia sari moduan eskuratu zuten gazteak.

Bat-bateko saioaren unea heldu zen gero. Gasteizko Maddi Agirre, Hegoi Amabizka eta Eukene De los Aires, Aramaioko Danel Herrarte eta Gari Arexolaleiba eta Aguraingo Beñat Cano izan ziren hiru eskualdeetan egindako topaketetan aukeratutako 6 finalistak.

Maddi Agirreri Aitor Ugartek jantzi zion txapela, buru onean dagoela gogoraraziz, eta iazko lekukoa jasotzen duen egurrezko mikrofonoa pasatzean sendo kantatu zuen "Oinordetzan pasatzea da zure misioa, inoiz ere ez dadila eten transmisioa". Harro eta arduraz kontziente hartu zuen Maddik lekukoa "gazteriaren lana da orain txinparta su bihurtzea, jarrai dezagun bertsolaritzan egiten gure bidea". Luzaroan gogoan izango duen txapelketako oroigarri borobila eraman du etxera.

nba ni banax arabakoa

# BERTSO ESKOLAK

Gasteizko bertso-eskolek lanean jarraitu dute etengabean ikasturte osoan zehar. Haur eta gazteen 10 talde izan dira Hiriko puntu ezberdinetan.

Ateak zabalik daude etorri nahi duten guztientzat. Une honetan Alde zaharrean, Armentia ikastolan eta Amaia Zentroan dauzkagu haurrentzako eta gazteentzako bertso-eskolak. Ur freskoa bezala hartuko zaituztegu.

GOZATU OPORRAK !

inscripción online

IZENA EMATEKO

